

2020ko UZTAILAREN 2ko 2/20. ZENBAKIKO OHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.

AKTA

1.- IRAKURRI ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO EZOHIKO SAIOETAKO AKTAK: EKAINAREN 8ko 2. ZENBAKIKO BILKURARENA ETA EKAINAREN 15eko 3 ZENBAKIKO BILKURARENA.

Bertaratutakoek aho batez onartu dituzte aurreko 2020ko ekainaren 8ko 2 zenbakiko eta 2020ko ekainaren 15eko 3 zenbakiko ezohiko bilkuren aktak.

2.- HASIERA BATEAN ONESTEA, BIDEZKOA BADA, DIRULAGUNTZA IZENDUNAK ZUZENEAN EMATEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

[...]

Proposamena bozkatu da:

Aldeko botoak: EAJ-PNVren 3

Aurkako botoak: EH Bilduren 4

Abstentzioak: AEIren 2.

Bertaratutako zinegotzien gehiengo soilaren bidez adostu da EZ ONARTZEA Dirulaguntza Izendunak Modu Zuzenean Emateko Ordenantza Arautzailea.

3.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2020. URTERAKO FONDO GEHIGARRIAREN % 0,3 SOLDATA-MASA ESLEITZEA, EUDELEN IRIZPIDEEN ARABERA.

[...]

Bertaratutakoek aho batez onartu dute 2020. urterako fondo gehigarriaren % 0,3 soldata-masa esleitzea udal langileen gehigarri espezifikoari.

[...]

4.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, LAGUNTZA-ZERBITZUAK, UDALHITZ HITZARMENEN HOBETUNTZAK SOPUERTAKO UDALEKO FUNTZIONARIO ETA LAN-KOTRATUDUN LANGILEENTZAT.

[...]

Bertaratutakoek aho batez adostu dute onartzea Udalak langileei ematen dizkien kontraprestazioen hobekuntzak. Horietan gaur egun dagoenaren gehigarria den gizarte-prestazio osagarri bat dago, fisioterapia, baina ez dira gizarte-ekintzako gastuak hazi.

5.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, KALTEBERATASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONA ETA/EDO FAMILIEI LAGUNTZA EKONOMIKOAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK, COVID-19AK SORTUTAKO OSASUN-KRISIALDIAK ERAGINDAKO EZOHIKO BEHARRIZAN-EGOERAK ARINTZEKO.

[...]

Bertaratutakoek aho batez onetsi dute:

Onartzea kalteberatasun egoeran dauden pertsona eta/edo familiei dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarri arautzaileak, COVID-19ak sortutako osasun-krisialdiak eragindako ezohiko beharizan-egoerak arintzeko.

Deialdiaren oinarriak eta iragarkia argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2020ko AURREKONTUAREN 7. ALDAKETA-ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN ZUZKIDURA MODALITATEAN.

[...]

Bozkatu egin da aurrekontuaren kreditu gehigarrien proiektua:

Aldeko botoak: EAJ-PNVren 3.

Aurkako botoak: 6, EH Bilduren 4 eta AEIren 2.

Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioko kideen legezko zenbatekoaren gehiengo absolutuaren bidez, erabaki da EZ ONESTEA 2020ko aurrekontuko 7 zenbakiko aldaketa, kreditu gehigarrien espedientea.

7.- ONESTEA, HALA BADAGOKIO, 2020 EKITALDIRAKO GAURKO EMAKUMEAK ELKARTEAREN ZUZENEKO DIRULAGUNTZAREN OINARRI ARAUTZAILEAK.

[...]

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute onestea 2020ko jardueretarako Gaurko Emakumeak-Sopuertako emakumeen elkarteari zuzeneko dirulaguntza emateko oinarria arautzaileak.

8.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ASESORÍA GORDOBIL SL ENPRESAREN ALDEKO KREDITUAK JUDIZIOZ KANPO AITORTZEKO ESPEDIENTEA, AURRETIAZ INONGO KONTRATURIK EGON GABE FAKTURAK AURKEZTEAGATIK.

[...]

Udalburuak Batzordearen proposamena bozkatzeko eskatu du:

Aldeko botoak: EAJ-PNVren 3

Aurkako botoak: 6, EH Bilduren 4 eta AEIren 2.

Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren bidez, erabaki da EZ ONARTZEA Asesoría Gordobil SL enpresaren aldeko kredituak judizioz kanpo aitortzeko espedientea, apirila eta maiatzeko zerbitzuen fakturengatik.

9.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, TAYFER 2002 ENPRESAREN ALDEKO KREDITUAK JUDIZIOZ KANPO AITORTZEKO ESPEDIENTEA, AURRETIAZ INONGO KONTRATURIK EGON GABE FAKTURAK AURKEZTEAGATIK.

[...]

EH Bilduk aurreko puntuaren azalpen berdina eman du, oraingoan Tayfer SL enpresari buruz.

Udalburuak Batzordearen proposamena bozkatzeko eskatu du:

Aldeko botoak: 5; EAJ-PNVren 3 eta AEIren 2

Aurkako botoak: EH Bilduren 4

Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioko bertaratutako kideen zenbatekoaren gehiengo soilaren bidez, erabaki da ONESTEIA Tayfer 2002 SL enpresaren aldeko kredituak judizioz kanpo aitortzeko espedientea, maiatzean emandako eta fakturatutako hornikuntzengatik.

10.- ONESTEIA, BIDEZKOA BADA, URBEGUI SERVICIOS AUXILIARES SL ENPRESAREN ALDEKO KREDITUAK JUDIZIOZ KANPO AITORTZEKO ESPEDIENTEA, AURRETIAZ INONGO KONTRATURIK EGON GABE FAKTURAK AURKEZTEAGATIK.

[...]

Udalburuak Batzordearen proposamena bozkatzeko eskatu du:

Aldeko botoak: 7; EAJ-PNVren 3 eta AEIren 4

Aurkako botoak: AEIren 2

Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioko bertaratutako kideen zenbatekoaren gehiengo soilaren bidez, erabaki da ONARTZEA URBEGUI SERVICIOS AUXILIARES enpresaren aldeko kredituak judizioz kanpo aitortzeko espedientea, maiatzean emandako eta fakturatutako hornikuntzengatik.

11.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, APIRILAREN 19ko148/20 ALKATETZA DEKRETUA, URBEGUI SERVICIOS AUXILIARES SL ENPRESAK KONTRATUA IZAN GABE AURKEZTUTAKO FAKTUREN KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AITORTZA ONESTEKOA, 25.106,70 EUROKO ZENBATEKOAN.

[...]

Udalburuak Batzordearen proposamena bozkatzeko eskatu du:

Aldeko botoak: 7; EAJ-PNVren 3 eta AEIren 4

Aurkako botoak: AEIren 2

Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioko kideen legezko zenbatekoaren gehiengo absolutuaren bidez, erabaki da BERRESTEA apirilaren 19ko 148/20 zenbakiko Dekretua, URBEGUI SERVICIOS AUXILIARES enpresaren aldeko kredituen judizioz kanpoko aitortza onestekoa, 2020ko urtarril, otsail eta martxoan udal-eraikinetan garbiketa zerbitzua emateagatik.

12.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, APIRILAREN 19ko 149/20 ALKATETZA DEKRETUA, A.S.G. ENPRESAK KONTRATUA IZAN GABE AURKEZTUTAKO FAKTUREN KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AITORTZA ONESTEKOA, 25.881,24 EUROKO ZENBATEKOAN.

[...]

Bertaratutakoek aho batez adostu dute BERRESTEA apirilaren 19ko 149/20. zenbakiko Dekretua, A.S.G. enpresaren aldeko kredituen judizioz kanpo aitortza onestekoa, 2020ko urtarril eta otsailean turismo, gazteria eta jarduera sozio-kulturalak koordinatzeko zerbitzuengatik.

13.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, APIRILAREN 19ko 150/20 ALKATETZA DEKRETUA, CONTENEDORES OTXARAN ENPRESAK KONTRATUA IZAN GABE AURKEZTUTAKO FAKTUREN KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AITORTZA ONESTEKOA, 4.180 EUROKO ZENBATEKOAN.

[...]

Udalburuak Batzordearen proposamena bozkatzeko eskatu du:

Aldeko botoak: EAJ-PNVren 3
Aurkako botoak: 6, EH Bilduren 4 eta AEIren 2.
Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioko bertaratutako kideen legezko zenbatekoaren gehiengo absolutuarekin, erabaki da EZ BERRESTEA apirilaren 19ko 150/20 Dekretua, Contenedores OTXARAN enpresaren aldeko kredituen judizioz kanpoko aitortza onestekoa, edukiontziak alokatu eta kentzeko zerbitzuagatik.

14.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, APIRILAREN 19ko 152/20 ALKATETZA DEKRETUA, ASESORIA I. GORDOBIL ENPRESAK KONTRATUA IZAN GABE AURKEZTUTAKO FAKTUREN KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AITORTZA ONESTEKOA, 2.246,97 EUROKO ZENBATEKOAN.

[...]

Udalburuak Batzordearen proposamena bozkatzeko eskatu du:

Aldeko botoak: EAJ-PNVren 3
Aurkako botoak: 6, EH Bilduren 4 eta AEIren 2.
Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioko bertaratutako kideen legezko zenbatekoaren gehiengo absolutuarekin, erabaki da EZ BERRESTEA apirilaren 19ko 152/20 Dekretua, Asesoría Gordobil SL enpresaren aldeko kredituen judizioz kanpoko aitortza onestekoa, 2019ko azaro eta abenduko eta 2020ko urtarril eta otsaileko Gizarte Segurantzarekiko izapide eta nominak egiteko.

15.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, APIRILAREN 19KO 153/20 ALKATETZA DEKRETUA, TAYFER 2002 SL ENPRESAK KONTRATUA IZAN GABE AURKEZTUTAKO FAKTUREN KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AITORTZA ONESTEKOA, 1.916,32 EUROKO ZENBATEKOAN.

[...]

Udalburuak Batzordearen proposamena bozkatzeko eskatu du:

Aldeko botoak: 5; EAJ-PNVren 3 eta AEIren 2
Aurkako botoak: EH Bilduren 4
Abstentzioak: bat ere ez.

Korporazioko bertaratutako kideen zenbatekoaren gehiengo soilaren bidez, erabaki da BERRESTEA apirilaren 19ko 153/20 Dekretua, Tayfer 2002 SL enpresaren aldeko kredituen judizioz kanpoko aitortza onestekoa, Obren Brigadako artikuluen hornikuntzagatik.

16.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, APIRILAREN 19ko 154/20 ALKATETZA DEKRETUA, CANTERA LACILLA SL ENPRESAK KONTRATUA IZAN GABE AURKEZTUTAKO FAKTUREN KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AITORTZA ONESTEKOA, 84,95 EUROKO ZENBATEKOAN.

[...]

Korporazioko bertaratutako kidek aho batez erabaki dute BERRESTEA apirilaren 19ko 154/20 Dekretua, CANTERA LACILLA SL enpresaren aldeko kredituen aitortzerako espediente estrajudizialarena, Obren Brigadarako materialen hornikuntzagatik.

Korporazioko bertaratutako kideen zenbatekoaren gehiengo soilaren bidez, erabaki da BERRESTEA apirilaren 19ko 153/20 Dekretua, Tayfer 2002 SL enpresaren aldeko kredituen judizioz kanpoko aitortza onestekoa, obra-brigadako artikuluen hornikuntzagatik.

17.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, APIRILAREN 19ko 155/20 ALKATETZA DEKRETUA, D.J.H.V. ENPRESAK KONTRATUA IZAN GABE AURKEZTUTAKO FAKTUREN KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO AITORTZA ONESTEKOA, 3.115,63 EUROKO ZENBATEKOAN.

[...]

Mamen Etxebarria Berasaluze andreak espedientea eguneko gai-zerrendatik kentzeko eskatu du, txostenak bildu ahal izateko. Zinegotzi guztiak ados egon dira eta bertaratutako guztiek aho batez erabaki dute puntua eguneko gai-zerrendatik kentzea.

[...]

18.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, MAIATZAREN 14ko 194/20 ALKATETZA DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ PROPOSATZEN BAITA 2021eko UZTAILAREN 26a, SANTA ANA JAI, TOKIKO JAI IZATEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANEKO JAI EGUNEN EGUTEGI OFIZIALEAN SARTZEKO.

[...]

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute maiatzaren 14ko 194/20 Dekretua berrestea; era berean, berretsi egin da 2021. urtean uztailaren 26a, Santa Ana jai, jai izatea.

19.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, KONTU-HARTZAILTZAREN ERAGOZPEN ETENGARRIA DUEN NOMINAREN ORDAINKETA.

[...]

Mamen Etxebarria Berasaluze andreak espedientea eguneko gai-zerrendatik kentzeko eskatu du, txostenak bildu ahal izateko. Zinegotzi guztiak ados egon dira eta bertaratutako guztiek aho batez erabaki dute puntua eguneko gai-zerrendatik kentzea.

[...]

20.- 2018 AURREKONTU-EKITALDIKO ZERBITZUEN KOSTUAREN BERRI EMATEA.

Ekainaren 24ko 2/2020. zenbakiko Ekonomia, Ogasun, Ondare eta Langileria Informazio eta Kontuen Batzorde Berezian, erakundeak emandako zerbitzuen kostuaren berri izan dute: 1.660.123,95 €.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

21.- 2019ko AURREKONTUAREN LAUGARREN HIRUHILEKOKO EXEKUZIO-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Ekainaren 24ko 2/2020. zenbakiko Ekonomia, Ogasun, Ondare eta Langileria Informazio eta Kontuen Batzorde Berezian, aurrekontu-egonkortasuna ebaluatzeko 2019ko laugarren hiruhilekoko txostenaren berri eman da, 5/2013 Foru Araua beteta.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

22.- 2019 EKITALDIKO LIKIDAZIOARI DAGOKION AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN EBALUAZIO-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Ekainaren 24ko 2/2020. zenbakiko Ekonomia, Ogasun, Ondare eta Langileria Informazio eta Kontuen Batzorde Berezian, 2019ko aurrekontuaren likidazioaren aurrekontu-egonkortasunaren ebaluazio-txostenaren berri eman da, 5/2013 Foru Araua beteta.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

23.- 2020 EKITALDIKO AURREKONTUARI DAGOKION AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN EBALUAZIO-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Ekainaren 24ko 2/2020. zenbakiko Ekonomia, Ogasun, Ondare eta Langileria Informazio eta Kontuen Batzorde Berezian, aurrekontu-egonkortasunaren ebaluazio-txostenaren berri eman da, 5/2013 Foru Araua beteta.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

24.- 2019 EKITALDIARI DAGOKION HORNITZAILEEI ORDAINKETA OROKORRA EGITEKO BATEZBESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.

Ekainaren 24ko 2/2020. zenbakiko Ekonomia, Ogasun, Ondare eta Langileria Informazio eta Kontuen Batzorde Berezian, 2019ko hornitzaileei ordaintzeko batezbesteko epearen berri eman da: 27,84 egun. 30 egun baino gutxiago

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

24.- 2020ko LEHENENGO HIRUHILEKOARI DAGOKION HORNITZAILEEI ORDAINKETA OROKORRA EGITEKO BATEZBESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.

Ekainaren 24ko 2/2020. zenbakiko Ekonomia, Ogasun, Ondare eta Langileria Informazio eta Kontuen Batzorde Berezian, 2020ko lehenengo hiruhilekoan hornitzaileei ordaintzeko batezbesteko epearen berri eman da: 38,37 egun. 30 egun baino gehiago.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

26.– ATXASPE ABESBATZAREN 1. ZENBAKIKO FAKTURA EZESTEAREN ETA OKERREKO DIRU-SARRERA ITZULTZEAREN BERRI EMATEA.

Ekainaren 24ko 2/2020. zenbakiko Ekonomia, Ogasun, Ondare eta Langileria Informazio eta Kontuen Batzorde Berezian, jakinarazi da Atxaspe abesbatzari bidegabeki ordaindutako 3.210 €-ak itzuli eta Udalaren Diruzaintzan sartu dela.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

27.– 2019 EKITALDIKO SOPUERTAKO UDALEKO LANGILERIA GASTUEN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Ekainaren 24ko 2/2020. zenbakiko Ekonomia, Ogasun, Ondare eta Langileria Informazio eta Kontuen Batzorde Berezian, 2019an Udaleko lanpostuetako bakoitzak izango duen ordainsari partzial eta osoen berri eman da.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

28.– BEHIN-BEHINEAN ONESTEA, BIDEZKOA BADA, "SAN VIATOR IKASTETXEA" SG 6 LURZORU URBANIZAEZINEAN EKIPAMENDU-SISTEMA OROKORRAREN PLAN BEREZIA.

[...]

Proposamena bozkatu da:

Aldeko botoak: 5; EAJ-PNVren 3 eta AEIren 2

Aurkako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: EH Bilduren 4

Bertaratutako zinegotzien gehiengo soilaren bidez adostu da:

Hasiera batean onartutako "San Viator Ikastetxea" SG 6 Lurzoru Urbanizaezinean Ekipamendu-sistemaren Plan Orokorra bidaltzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 97.4 artikularen arabera.

Behin-behinean onestea "San Viator Ikastetxea" SG 6 Lurzoru Urbanizaezinean Ekipamendu-sistemaren Plan Berezia eta Bizkaiko Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onesteko.

29.– ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN PLEGUA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENTEA. GAINERA, BERRIZ ERE IRAGARTZEA LOKAL ETA ERAIKINEN GARBIKETARAKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN LEHIAKETA.

[...]

Bertaratutakoek aho batez onetsi dute:

Onestea esleipen-irizpideen aldaketak biltzen dituen Administrazio-Baldintza Berezien Plegua, onestea udal-erakin eta lokalak garbitzeko zerbitzuen kontratua esleitzeko

kontratazio-espeditentea eta udal webgunean zein kontratatzailearen profilean argitaratuko den lehiaketa-prozedura irekitzea.

30.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, BISCAYTIK PROIEKTUAREN ESPARRUAN ZERBITZU BATZUK ONARTZEKO ESPARRU-HITZARMENA.

[...]

Proposamena bozkatu da:

Aldeko botoak: 5; EAJ-PNVren 3 eta AEIren 2

Aurkako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: EH Bilduren 4

Berlaratutako zinegotzien gehiengo soilaren bidez adostu da:

Onestea Biscaytik proiektuaren esparruan zerbitzu batzuk onartzeko esparru-hitzarmena; urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoek ezarritako baldintzekin eta Zortzigarren Xedapen Gehigarriak ezarritakoaren arabera. Xedapen horrek Biscaytikek eskaintzen dituen zerbitzuetara atxikitze oinarri arautzaileak ezartzen ditu, horiek I. eranskinean agertzen dira. Zortzigarren Xedapen Gehigarriak gu atxiki gaitzkeen beste zerbitzu batzuk ere arautzen ditu.

31.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ENKARTERRIKO UDALERRIEN MANKOMUNITATEAN ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU-ERASOAK JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDE ARTEKO III. JARDUKETA-ETA KOORDINAZIO-PROTOKOLOA.

[...]

Proposamena bozkatu da:

Aldeko botoak: 5; EAJ-PNVren 3 eta AEIren 2

Aurkako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: EH Bilduren 4

Berlaratutako zinegotzien baiezko botoen gehiengoaren bidez adostu da:

Onartzea Enkarterriko Udalerriaren Mankomunitateko genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei arreta hobea emateko erakunde arteko iii. jarduketa-eta koordinazio-protokoloa.

32.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, BURDINMENDIKO BIDE BERDEA ERABILTZEKO UDAL ORDENANTZAREN PROPOSAMENA.

[...]

Berlaratutako guztiek aho batez onetsi dute:

Hasiera batean onestea proposatutako bide berdea erabiltzeko Udal Ordenantza eta jendaurrean jartzea interesdunen entzunaldirako, 30 eguneko epean alegazioak aurkezteko. Alegaziorik egon ezean, modu automatikoan ulertuko da behin betiko onartu dela eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da testu osoa, argitaratu ondoren indarrean sartzeko. Alegazioak eginez gero, Udaltzarak ebatziko ditu egindako erreklamazio eta

iradokizunak eta behin betiko onartuko du apirilaren 2ko Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 49. artikulua araberaz.

33.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, GAZTERIA POLITIKA INTEGRALAK EZARTZEKO, SUSTATZEKO ETA GARATZEKO BFAREN ETA HAINBAT UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.

[...]

Proposamena bozkatu da:

Aldeko botoak: 5; EAJ-PNVren 3 eta AEIren 2

Aurkako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: EH Bilduren 4

Bertaratutako zinegotzien baiezko botoen gehiengo soilaren bidez adostu da:

Onestea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Sopuertako Udalaren arteko Lankidetzaz Hitzarmena 2020-2023 arteko epean gazteria politika integralak ezartzeko, sustatzeko eta garatzeko.

KONTROLA.

34.- SOPUERTAKO UDALAK ÁLVAREZ FORESTAL SA ENPRESAREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOAREN 2020ko APIRILAREN 30eko 145/2020-ZENBAKIKO EPAIAREN ETA MAIATZAREN 15eko 208/2020 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Apirilaren 30ean Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren 145/2020. zenbakiko ebazpenaren berri eman da eta horrek atzera botatzen du Sopuertako Udalak jarritako apelazio-errekurtsoa.

Horrez gain, jakinarazi da maiatzaren 15eko 208/20. zenbakiko Dekretuaren bidez ebatzi dela Auzitegi Goreneko arlo zibileko salan kasazio-errekurtsoa jartzea ebatzi dela.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

35.- CONSTRUCCIONES Y DESMONTES RIBERA NAVARRA SA ENPRESAK URRIAREN 4ko 586/19 DEKRETUAREN AURKA AURKEZTUTAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzari jakinarazi zaio 313/2019 administrazioarekiko auzi-errekurtsuan 2020ko ekainaren 11ko autoa ematen dela. Errekurtsu hori Construcciones y Desmontes Ribera Navarra SA enpresak jarri du Sopuertako Udalaren alkate-udalburuaren 2019ko urriaren 4 ko 586/19 Dekretuaren aurka. Azken horrek honako hau ebazten du: onartzea "Mercadillo kale/auzoko 1. zenbakian dagoen eraikina eraistea" obraren egiaztagiria-likidazioa, 40.532,02 euroko zenbatekoan. Aipatutako autoak errekurtsoa frogara onartzen du eta onartutako frogak datorren 2020/10/28ko 17:45ean jakinaraziko ditu.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

36.- T.F.O. ANDREAK ABUZTUAREN 27ko 410/18 DEKRETUAREN AURKA AURKEZTUTAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzari jakinarazi zaio 2018ko azaroaren 20an 335/2018 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuela T.F.O. andreak, 2018/08/27ko 410 Dekretuaren aurka. Dekretu hori 2018/0143 espedientean eman zen eta Mercadillo kaleko 55. zenbakian aurretik zegoen etxerako obren lizentzia ezeztatzen du. Gaur egun espedientea etenda dago eskatzaileak hala eskatu duelako eta Udala ados zegoelako. Azken etena 2020ko maiatzaren lauan dekretatu zen eta honako hau dio: eskatzaileak eskatutakoa onartu da eta horregatik BERTAN BEHERA GERATZEN DIRA autoak eta HIRUROGEI EGUN baino gutxiagoko epe berri bat ezarriko da, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik hasiko dena.

Horren berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

37.- AZKEN OSOKO BILKURATIK EMANDAKO UDAL EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Udalbatzari jakinarazi zaio azken osoko bilkuratik honako Alkatetza Ebazpen hauek eman direla: urtarrilaren 17ko 10/2020 Dekretutik hasi eta ekainaren 17ko 260/2020 Dekretura bitartekoak.

38.- GALDE-ESKEAK